

## Berrikuntza askorekin dator Kirol-hezkuntzaren Berrikuntzan Aditu Tituluaren bigarren edizioa

2017/06/02

Ekainaren 15ean irekiko da epea izena emateko Kirol-hezkuntzaren Berrikuntzan Unibertsitateko Aditu Tituluan; interesatuek urriaren 15ea arte izango dute aukera graduondoan inskribatzeko. **Berrikuntza ugariarekin dator aditu tituluaren bigarren edizioa:** batetik, interesatuek aukera izango dute graduondo osoa egiteko edo **modulu solteak** hartzeko; bestetik, eduki berriak eskainiko ditu aditu tituluak, hala nola **neuro-hezkuntza gorputz-hezkuntzaren gaineko modulua**. Eskolak urriaren 26an hasiko dira.

Kirol-hezitzailea aditu titulu zuzenduta dago kirol eta hezkuntza munduko profesionalak, lan egiten dutenak honako esparruetan: gorputz hezkuntza eta eskola-kirolean, administrazioaren kirol sailetan (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak, mankomunitateak), kirol enpresa eta erakundeetan, kirol elkarte zein federazioetan, aisialdiko jarduerak eta ekintzak antolatzen dituzten elkarteetan, hezkuntza eragileez osatutako foro eta lan-taldeetan, komunitatearen garapenarekin lotutako proiektuetan...

Metodologiari dagokionez, graduondoak eskainiko ditu saio presentzialak, praktika eta esperientzia interesgarriak, eztabaida-mintegiak. Gainera, ikasle bakoitzak egin beharko ditu praktikak eta proiektu bat.

Aditu titulu honen helburua da formatzea kirol esparruan pertsona anitzekin eta testuinguru anitzetan arituko den profesionalak; profesional hori ikuspegi berritzaile batetik abiatuko da pertsonen garapen integrala bultzatzeko eta gizarte inklusiboago bat eraikitzen laguntzeko.

Aurrez aurreko eskola emango dira, ostegunetan, Eskoriatzako campusean, 17:00etatik 21:00etara. Adituak eskatzen du 250 orduko dedikazioa. Horietatik, 100 ordu bideratuko dira aurrez aurreko eskoletara, beste 125 ordu praktikak eta bukaerako lana egiteko eta, azkenik, 25 ordu modu ez presentzialen egin behar diran lanak egiteko (irakurketak, ariketak...). Guztira, adituak ditu 10 ECTS.

### Moduluka ere bai

Bigarren edizio honetan aukera egongo da aditu titulu osoa egiteko edo, interesatuek hala nahi izanez gero, modulu solteak hartzeko. Hauetxek dira graduondoak eskainiko dituen moduluak:



Aurrez aurreko saioak urriaren 26an hasiko dira.

## ADITUAREN MODULUAK

1	PROFESIONAL GOGOETATSUA	4 saio	Urriak 26 Azaroak 16
2	BERRIKUNTZA METODOLOGIKOA	4 saio	Azaroak 23 Abenduak 21
3	ANIZTASUN FUNTZIONALA	3 saio	Urtarrilak 11 Urtarrilak 25
4	KULTURARTEKOTASUNA	4 saio	Otsailak 1 Otsailak 22
5	GENEROA	4 saio	Martxoak 1 Martxoak 22
6	EUSKARA	3 saio	Apirilak 12 Apirilak 26
7	NEURO-HEZKUNTZA HEZKUNTZA FISIKOAN	3 saio	Maiatzak 4 Maiatzak 5
PRAKTIKAK ETA ADITU BUKAERAKO LANA			

### Infomazio saioak

Aditu tituluarekin buruzko informazioa emateko hiru saio antolatu dira, hirurak Eskoriatzan eskainiko dira 18:30etan hasita.

- Ekainaren 5ean (osteguna).
- Ekainaren 15ean (osteguna).
- Irailaren 7an (osteguna).

Informazio saioetan izena emateko: [Informazio saioak](#).

### Informazio gehiagorako

- [Kirol-hezkuntzaren Berrikuntzan Unibertsitateko Aditu Titulari buruzko infomazio guztia](#).
- [Izen-emate orria](#).
- [Kirol-hezkuntzaren Berrikuntzan Unibertsitateko Aditu Tituluaren eskorrian \(pdf\)](#).